HERNANIK
kronika

2003 urtea
Otsailak 14
Ostirala
Alea: 694
www.hkronika.com

HEZKUNTZAN AURREMATRIKULAZIO KANPAINA

Hernaniko ikastetxe guztiak, gurasoak eta Udala atzo, herriko hezkuntza aukeraren berri emateko ekitaldian.

Ikastetxe, guraso eta Udalak herriko hezkuntza aukera eta kalitatea nabarmendu dute

■ Herriko umeak herrian ikastearen abantailak eta garrantzia azpimarratu dituzte ■ Herriko Ikastetxeen Kontseiluak eta Udaletxeko Hezkuntza Batzordeak bultzatu du iniziatiba.

HAUR, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako aurrematrikulazio kanpaina gaur bukatuko da, eta Hernaniko ikastetxe guztiak, gurasoak eta Udalak agerpen publikoa egin zuten atzo herriko hezkuntza-aukera "zabala, osoa eta kalitatezkoa"ren berri emateko.

Mila Apezetxea Alkateorde eta Hezkuntza zinegotziak hartu zuen hitza aurrena, eta bere esanetan herriko Ikastetxeetako Kontseilu eta Hezkuntza Batzordeak bultzatu dute iniziatiba. Apezetxeak adierazi du matrikulazio kanpainan, normala den bezala, ikastetxe bakoitzak bere kanpaina egiten duela. "Horretaz gainera, ordea, -esan zuen Mila Apezetxeak- uste dugu interesgarria eta garrantzitsua dela denok elkarrekin Hernaniko eskaintza zabalaren berri ematea. Eta azpimarratu nahi dugu garrantzitsua dela herrian matrikulatzea, bai hernaniarrentzat eta baita Hernanirentzat ere"

Patxi Apezetxeak Hernani Institutuko zuzendariak hitz egin zuen irakasleen izenean, eta herriko ikastxeetan ikasteak dakarzkien abantailak nabarmendu zituen. Patxi Apezetxeak azpimarratu zuen Hernaniko ikastetxeetan prestakuntza haundiko irakasleak daudela eta ikasleei jarraipen pertsonalizatua egiten zaiela. Beste abantailetako batzuk dira: Ikastetxeak herrian txertatuta egotea, hezkidetzan oinarritutako hezkuntza izatea, ekipamendu eta baliabide onak, DBH eta Institutuaren arteko harreman zuzena, eta ikastetxeek lan munduarekin duten harremana. Patxi Apezetxeak esan zuen formazio zikloak egiten dituzten ia denek lana bilatzen dutela.

Harreman sozialak

Txema Trantxek guraso ikuspegitik, hezkuntza kalitateaz gain, eskolaz kanpo egiten diren ekintzen balioa nabarmendu zuen. Bere esanetan, umeek askotan eskolan egiten dute bere lagunartea eta koadrila, eta adierazi zuen umearen etorkizunerako inguru sozial hori herrian egitea garrantzitsua dela.

Ikastetxe, guraso eta Udalak elkarrekin egiten duten aurreneko ekitaldia izan da, baina, aurrera ere bide horretatik jotzeko asmoa dute. ❑

10 ARRAZOI HERNANIN MATRIKULARZEKO

1) Hernanin eskaintza ona eta osoa dago, 0-20 urte bitartekoa.
2) Irakasle prestatuak. Egonkortasuna eta etengabeko prestakuntza dutenak.
3) Ikasleei jarraipen pertsonalizatua egiten zaie.
4) Euskeraz bizitzea eta eleaniztasuna dute helburu.
5) Ikastetxeak herriko bizitzan txertatuta daude.
6) Hezkidetza edo kohedukazioan oinarritutako hezkuntza da.
7) Baliabide eta ekipamendu egokiz osatuta daude.
8) Eskolaz kanpoko aktibitate aukera zabala dute.
9) Heziketa zikloak eginda, ia denek lana bilatzen dute.
10) Ikastetxeek lan munduarekin harreman estua dute.

ETXERAT ELKARTEA

Euskal errepresaliatuen aldeko enkartelada gaur

ETXERATEK deituta Euskal errepresaliatuen eskubideen aldeko enkartelada egingo da gaur Hernanin. Enkartelada 20:00etan aterako da Gudarien plazatik eta herriko kaleetan barrena joango da. Etxeratek dei egin die hernaniar guztiei enkarteladan parte hartzeko. ❑

Barandalla askatzea eskatzeko asanbleak

BAUTISTA Barandalla preso etxarriarra askatzea eskatzeko bi asanblea egingo dira Hernanin, Segi gazte erakundeak antolatuta. Lehenengoa eguerdi partean hezkuntzan eta bigarrena arratsaldeko 20:00etan, Gudarien plazan. Eguerdirako deitua zegoen manifestazioa suspenditu egin da. Barandalla egoera larrian dago eta Euskal Herri mailan ekintza ugari ari dira egiten bere askatasuna eskatzeko. ❑

'Prestige'ri buruzko hitzaldia gaur Biterin

PRESTIGEREN Hondamendiari buruzko hitzaldia emango dute gaur Biterin, 19:30etan. Hizlariak dira Esteban Olaizola Arrantzaleen Kofradiako lehendakariak eta Jose Ramon Migel eta Alberto Frias ekologistak. ❑

ZINEA BITERIN

'Katchanka' gaur

BITERIN bi pelikula botako dituzte asteburuan. Helduentzat Katchanka, gaur 22:30etan; bihar 19:30 eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. Umeentzat, Dragon Hill, larunbatean eta igandean 17:00etan. ❑

ZINEA EREÑOTZUN

'Kiriku eta Sorgiña' bihar

EREÑOTZUN marrazki bizidunak botako dituzte bihar, 18:30etan, Txirrita eskolan, auzo elkarteak antolatuta. ❑

HERNANIK
kronika

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: *Hernani Komunikazioak*: J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943- 336306. Eposta: *kronika@topagunea.com*.
Lege gordailua:SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

2003 UDAL AURREKONTU PROIEKTUARI EMENDAKINAK

Urbanizazio batzuk egin eta Chillida-Lekuk Hernaniri eman liezaiokeena aztertzeko proposatu du EA-EAJk

■ Koalizioak Osotasuneko zuzenketa bana egin die Aurrekontuei eta Lanpostuen zerrendari ■ Bestalde, 4 enmendakin partzial proposatu ditu.

EA-EAJ koalizioak 2003ko Udal Aurrekontuak berriz egiteko eskatu dio Gobernu Taldeari. Oposizioko Udal Talde nagusiak Osotasuneko zuzenketa bana aurkeztu ditu Aurrekontuei eta Lanpostuen zerrendari, eta inbertsioen kapituluan 4 proposamen egin ditu. Emendakin horiek asteazkeneko Hazienda Batzordean egin zituen EA-EAJk eta gaurko Hazienda Batzordean eztabaidatuko dira berriz, Aurrekontu osoarekin batera.

EA-EAJk dioenez, Udaletxeko indikadore finantzieropresupuestarioei begiratuta, garrantzitsuenek eboluzio negatiboa izan dute. Koalizioak azpimarratu du Udalak duen zorra, *zor bizia* deitzen zaiona, % 60 hazi dela, eta pertsonal gastuak % 35ean egin duela gora. Zentzu horretan, Joxan Rekondo buru duen koalizioak nabarmendu du laneko bajak haunditu egin direla, eta iazko presupuestoetan aurreikusi baino % 70 gehiago gastatu behar izan dela pertsonalean. Gastu arrunta igo izana ere kritikatu du koalizioak.

2003ko Aurrekontuetan liderazgo politikorik eza ere salatu du oposizioko Talde nagusiak: "politikoak iristen ez direnetara iristeko, beren arduretako gauzetan ere, kanpoko zerbitzuak kontratatu eta kito".

Lanpostuen zerrendari jarritako zuzenketari dagokionez, EA-EAJren argumentua da Udaletxe barruko antolaketa berritu egin dela (sail berriak sortu, Udaltzainen plantila haunditu, Zerbitzu ekonomikoetan aldaketak....) eta uste du maila horretako aldaketak eskatzen duela Gobernu eta oposizioaren arteko kontsentsua, baina, dio ez dela egon. EA-EAJren alternatiba da 2002ko plantila mantentzea "datozenei etorkizuna ez hipotekatzeagatik". ❑

EA-EAJ-REN ZUZENKETA PARTZIALAK

Zamora etxeetako urbanizazioa. EA-EAJk uste du ulertezina dela Elizatxoko auzotar batzuk kontribuzio berezia ordaindu behar izatea beren etxe-inguru eta plaza urbanizatzeko. Kontuan hartuta auzotarren egoera sozio-ekonomikoa, Udalaren eran-tzukizuna eta Diputazioak obra horretarako eman duena, EA-EAJk eskatu du Udalak obra bere gain hartu eta "Elizatxokoen-tzat jarritako kontribuzioa ezabatzea".

Sandiusterri eta Larramendi artea urbanizatu. Koalizioak proposatu du inguru horretan aparkalekuak mantendu eta gainerako zona urbanizatzea bere gune berdeekin eta Zaharren Egoitzarekin koherentzian. Bestalde, auzoei dagokionez, Elizatxo behea urbanizatu beharrekoa ikusten du.

Karabelen aparkalekuak. Auzotarren eskariari erantzunez EA-EAJk Karabelen 56 aparkaleku egitea proposatzen du.

Hiru proiektu hauen partidari 195.000 euro gehitzea eskatu du koalizioak.

Chillida-Lekuk Hernaniri eman liezaiokeena aztertu. EA-EAJren ustez, Chillida-Leku da Hernaniren aktiborik garrantzitsuena, nazioartean parerik ez duen kultur ondarea izateaz gain, "Ekonomiaren motore eta Hernani prestigiatzeko tresnarik inportanteena izan liteke". Gauzak horrela, Hernaniko Udalaren jarrera okerrekoa iruditzen zaio: Donostian museoaren promozioa etengabe egiten dutela-eta, Chillida-Leku Donostiari lotuta azaltzen dutela eragile turistikoek, eta Udalak ez duela promoziorik egiten uste du. EA-EAJk ikerzea nahi du Hernanik Chillida-Lekuren inguruan irabaz lezakeenaz.

'Autocad' marrazketa kurtsoa langabetuentzat

■ Kurtsoa Institutuak antolatu du eta otsailaren 25ean hasiko da ■ Klaseak astelehenetik ostiralera dira 15:30etatik 19:00etara ■ Kurtsoa debalde da.

HERNANI Institutuak eta Diputazioko Ekonomia Sailak autocad marrazketa kurtsoa antolatu dute langabetuentzat. Autocad 2000 ordenadore programa da, marrazketarako oso egokia. Kurtsoa 120 ordukoa da eta erabat debalde. Kurtsorako izena emateko Karmelo Labaka ikastetxetik pasa.

Txekinbide iniziatiba

Kurtsoa Txekinbide iniziatibaren barruan dijoa. Txekinbidek lan mundurako bideak ireki nahi dizkio aukera gutxien duen jendeari. Planak bizi osorako formakuntza bultzatzen du teknologia berrietan, eta enpresetan praktikak ere bai. Laguntzen dituztenak dira lehenengo lana bilatzen duten gazteak eta 40 urtetik gora izan eta aspaldi lanik gabe daudenak. Txekinbidek 2.704 euro ematen dizkio pertsona bakoitzari lana bilatzeko bidean zenbait zerbitzu ordaintzeko: formazio ikasketak, enpresetan praktikak, tutoriak eta abar.

Txekinbide Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak antolatu dute, Lan Orientaziorako Euskal Zerbitzuak lagunduta eta Europako Fondo Sozialarekin kofinantziatuta. Gaiaren inguruko informazio gehiago nahi duenak Lan Orientazioko zerbitzura deitu (943 213837) edo Hernani Institutura (943 551958 Salva). ❑

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

Pelota	Taldeak	Non	Noiz
Infantilak	Hernani-Aæorga	Astigarraga	Bihar15:00
Infantilak	Langile-Elizatxo	Donostia	Bihar17:30
Infantilak	Andazpe-Hernani		
Alebinak	Txirrita-Landaberri	Andoain	Bihar16:15
Alebinak	Udarregi-Elizatxo A	Usurbil	Bihar16:15
Futbol sala	**Taldeak**		
Infantilak	Udarregi-Langile	Usurbil	
Benjaminak	Langile A -Langile B	Kiroldegia	Bihar09:15
Benjaminak	Langile C -Elizatxo A	Kiroldegia	Bihar10:00
Benjaminak	Urumea-Elizatxo B	Kiroldegia	Bihar10:45
Boleibola			
Infantilak	Lizardi-Langile	Zarautz	

Futbola	Taldeak	Non	Noiz
Alebinmutilak	Inmaculada-Elizatxo A	Zubipe	Bihar09:00
Alebinmutilak	Urumea B -Langile A	Zubipe	Bihar09:00
Alebinmutilak	Langile B -Elizatxo B	Zubipe	Bihar10:00
Alebinmutilak	Urumea A -Langile C	Zubipe	Bihar10:00
Alebinneskak	Langile-Elizatxo	Zubipe	Bihar11:00
Saskibaloia			
Infantilak	Langile-Axular	Donostia	Bihar09:00
Errugbia			
Benjaminak	Elizatxo B -Langile B	Kiroldegia	Bihar09:15
Benjaminak	Urumea-Inmaculada	Kiroldegia	Bihar10:00
Benjaminak	Elizatxo A -Langile A	Kiroldegia	Bihar10:45

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

Taxiak:	943 550093
Udaltzaingoa:	943 333288
DYA:	943 464622
Autobusak:	943 556662
Anbulatorioa:	943 006666
Jokalari anonimoak:	943 331103

✝ FARMAZIAK

Egunez: Bilbao-Sagastiberri
Urbieta 7
☎ 943 552941

Gauez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia 42
☎ 943 361774

✝ **PABLO ERICE ARRIZABALAGA**

Atzo hil zen 47 urte zituela, elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Pablo joan zera gugandik urrun
holako egun beltzean
hainbeste lagun ta familia
utzi dituzu atzean
gaur erantzunik ezin aurkitu
buruari galdetzean
zure hutsunea nork beteko dun
kalean eta etxean.

Zure familia

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela GAUR, **OSTIRALA,** arratsaldeko **ZAZPIETAN, JUAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko otsailaren 14an

Helbidea: Telleri-Gain 41 Bis

OHARRA: Bere familiak ez du inor hartuko. Gorpua Orbegozo Ehorzketa Tanatorio berrian (kiroldegiaren ondoan) eguerdiko hamabiak arte egongo da.

PABLO ERICE ARRIZABALAGA

Alai eta atsegin beti lagun fin gure bihotzetan egongo zara beti

ZURE LAGUNAK

Hernanin, 2003ko otsailaren 14an

IRAGARKI MERKEAK

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAren konbokatoria. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: **943 44 45 09**

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: **943 44 45 09**

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun tituloa lortu ezazu. ADOZ: **943 44 45 09**

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdietarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: **943 44 45 09**

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdietarako. ADOZ: **943 444509**

BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdietarako. Presta zaitez: ADOZ: **943 44 45 09**

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: **943 444509**